BALDINTZA TEKNIKO PARTIKULARREN PLEGUA, HERNANIKO GABONETAKO ARGIAK ALOKATU, JARRI, KENDU ETA MANTENTZEKO KONTRATUA ARAUTUKO DUENA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Hernaniko gabonetako argi eta apaingarriak alokatzea, jartzea, kentzea eta mantentze-lanak kontratatzea.

2. AURREKONTUA

Gehienezko lizitazio-prezioa 44.500,00 €-koa (BEZa kanpo) izango da urtebeteko zerbitzurako.

3. EXEKUZIOA EPEA

Kontratuaren iraupena 2 urtekoa izango da, eta beste bi urtez luzatu ahal izango da, urtez urte.

4. ZERBITZUAREN EZAUGARRIAK

Zerbitzuak barne izango ditu:

- Zerbitzua emateko beharrezkoak diren material guztien garraioa: argiak, euskarriak, eroaleak, koadroak, etab. Baita haien ordezkapenak ere.

- Argiak eta instalazio guztia jartzeko, kentzeko eta mantentzeko beharrezkoak diren joan-etorriak, eskulana, segurtasun-neurriak, plataforma altxagailuak, makinak, materialak, tresna, erreminta eta gailu guztiak.

- Instalazioa jarri eta legeztatzeko hirugarrenekin egin beharreko kudeaketa eta ordaindu beharreko zerga guztiak: argindarraren enpresa banatzailearekin; Eusko Jaurlaritzako Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Sailarekin, Udaltzaingoarekin, lan segurtasun eta osasunarekin lotutakoak,, etab.

Argindarraren kostua kontratutik kanpo dago.

4.1. ARGITERIAREN EZAUGARRIAK

Argietan LED teknologia erabiliko da. Osagai guztien materialak energia eraginkortasunaren baitan eginak izango dira eta argi kontsumoa murriztera bideratuak egon behar dute.

Argiak piztu eta itzaltzeko maniobrako koadroak jarriko dira. Orientabide gisa, azken urtean 17 koadro jarri ziren.

Instalazio osoak bete beharko du indarrean dauden Behe Tentsiorako Araudi Elektroteknikoan eta haren jarraibide osagarrietan xedatutakoa.

Enpresa instalatzaileak izango du instalazioaren funtzionamendu onaren erantzukizuna kontratuak iraun bitartean.

Argiztapen-elementuek kanpoko argiztapenaren baldintzak bete beharko dituzte (IP 65 gutxienez), baita CE marka ere.

Enpresa esleipendunaren kontura izango dira argindarraren enpresa hornitzailearekin egin beharreko izapide guztiak, gabonetako argien hornidura elektrikoaren kontratazio bereizia egitea beharrezkoa izango balitz.

4.2. JARTZEA ETA KENTZEA

Gabonetako argiak, osagaiak eta apaingarriak egoki jarri eta kentzeko, honakoak bete beharko dira:

- Muntaketarekin hasi aurretik, enpresa esleipendunak apaingarrien kokaleku guztiak ikuskatuko ditu eta heldulekuetan antzematen dituen akats guztien berri emango die udaleko teknikariei. Gainera, egitura horien berezko pisua eta haizeak, euriak eta beste faktore klimatiko batzuek edo aurreikus litezkeen bestelako baldintzek sor litzaketen gainkargak, egituren edo instalazio elektrikoen segurtasunaren arloan indarrean dauden arauak betetzen dituela bermatuko da.

- Udaleko teknikoei akatsik jakinarazten ez bazaie, instalatuko diren elementu finkatzaileak ikuskatu egin direla eta seguruak direla ulertuko da.

- Etxebizitza inguruetan egiten diren muntaketak (fatxadetan, balkoietan eta abar.), aldez aurretik bizilagunen atarietan abisua jarri ondoren egin beharko dira.

- Lanen hasiera data udal teknikariekin adostuko da. Hainbat kaletako zuhaitzetan argiak instalatu aurretik, horiek kimatuak daudela ziurtatuko da.

- Arkuak edota argi osagaien altuera-instalazioari dagokienez, 6 metroko gutxieneko tartea (osagai baxuenetik lurreraino) bermatuko da, eremu horietatik pasa daitezkeen ibilgailuek (kamioiak, garbiketa ibilgailuak, autobusak...) oztoporik ez izateko.

- Argiteria hartuneak zehazteko eta adosteko, udaleko argi eta uretako ofizialek enpresa esleipendunarekin elkarlanean arituko dira, honako ordutegian: 07:00-14:00.

- Loturak eta deribazioak farolaren barruan eginez gero, farolaren tapa metalezko brida batekin itxi behar da. Lotura eta deribazio horiek eta aurretiazko lan guztiak udal teknikariekin birplanteatuko behar dira.

- Instalatutako elementu guztiak kendu behar dira desmuntatze-lanetan: elikadura-lineak, koadroak, harguneak, hariak eta abar. Erabilitako eremua eta elementuak jatorrizko egoeran utzi behar dira.

- Enpresa esleipendunak ezarrita dauden epeak beteko ditu, eta argiak instalatzeko beharrezkoak diren baimen guztiak aldez aurretik izapidetuko ditu.

4.3. MANTENTZE-LANAK

a) PREBENTZIOZKO LANAK

Abisurik jaso gabe enpresa esleipendunak berak egiten dituenak dira. Horretarako, aldez aurretik ezarritako maiztasunarekin euskarrien, argien eta instalazioaren ikuskapenak egin behar ditu.

Gutxienez, argiak pizten diren egunetik itzaltzen diren egunera arte 72 orduan behin pasa beharko du enpresa esleipendunak argiteria ikuskatzera.

Konponketa, zuzenketa edo ordezkapen beharrik ikusiz gero, antolatu eta lehenbailehen egin beharko dute.

Ikusitakoaren eta egindakoaren berri emango zaie udaleko ordezkariei.

b) ZUZENKETA-LANAK

Matxura baten edo instalazioaren funtzionamendu desegokiaren ondorioz egiten diren lanak dira. Lan horien helburua instalazioa lehenbailehen martxan jartzea da, bere funtzioa bete dezan.

Enpresa esleipendunak guardiako telefono-zenbaki bat eduki beharko du eguneko 24 orduetan, abisuak jasotzeko. Matxuraren bat gertatuz gero, Hernaniko Udaleko Udaltzaingoak edo Udal Zerbitzuetako sailak telefono-zenbaki honetara deituko du matxuraren berri emateko.

Arriskua eragin dezaketen matxura guztiak, presazko matxuratzat hartuko dira eta berehala konponduko dira, matxura detektatu eta gehienez 3 ordura.

Enpresak prest izango ditu zuzenketak egiteko beharrezkoak diren langileak, baliabide teknikoak, makinak eta ordezkapenak egiteko materiala: beharrezko neurriak hartzeko, eta, horrela, bide publikoko erabiltzaileengan egon daitekeen arriskua kentzeko edota instalazioan kalterik ez sortzeko.

Egindakoaren berri emango zaie udaleko ordezkariei.

4.4. EGUTEGIA ETA ORDUTEGIA

A) ARGIAK PIZTEA ETA ITZALTZEA

- Udaleko ordezkariek beste datarik adierazten ez badute, argiak abenduaren bigarren aste osoko ostiralean piztuko dira, hau da, 2025eko abenduaren 12an lehen urtean, eta 2026ko abenduaren 11n bigarren urtean.
- Udalak ahalmena izango du egutegiko egunak aldatzeko. Udalak adierazitako pizketaren data aurreratzea erabakiko balu, ez du kostu gehigarririk izango udalarentzat 10 egun baina gutxiago aurreratzen bada.
- Udaleko ordezkariek beste datarik adierazten ez badute, argiak urtarrilaren 7an itzaliko dira.

B) ARGIAK JARTZEA ETA KENTZEA

- Argiak abenduaren lehenengo aste osoko ostiralerako jarrita eta pizteko moduan egongo dira.
- Enpresa esleipendunak probak egingo ditu instalazioek ondo funtzionatzen dutela egiaztatzeko. Proba horietara udal-teknikariak gerturatuko dira.

- Urte bakoitzeko urtarrilaren 20a baino lehen argiak, apaingarriak eta elementu guztiak kenduko dira.

C) ORDUTEGIA

- Enpresa esleipenduna arduratuko da eguberrietako argien instalazioak pizteaz eta itzaltzeaz, eta ordutegia betetzen dela kontrolatuko du.
- Lehentasuna izango du aurretik zehaztutako ordutegi-doikuntzari eragiten dion edozein akats zuzentzea.
- Muntatzean instalatutako kaxa elektrikoak ordutegi honen arabera piztu eta itzaliko dira: egunero, 17:30eatik 22:00etara.
- Udalak ahalmena izango du ordutegiak aldatzeko.

4.5. APAINDU ETA ARGIZTATU BEHARREKO EREMUAK

Enpresa lizitatzaileak herrian zehar jarriko diren argien proposamena egingo du. Arreta berezia jarriko dio hiriko merkataritza eta ostalaritza eremuak argiztatzeari, baita bestelako interesdun eremuei ere.

Argiztatu beharreko eremuak 1. Eranskinean zehazten direnak izango dira.

I. Eranskinean azken urtetan argiztatu diren eremuetako elementuen ezaugarriak eta gutxieneko kopuruak adierazi dira. Eremuak nahitaez argiztatu beharko dira, baina proposamenak eremu edo elementu gehiago jaso ditzake eskainitako prezioaren barruan, hobekuntza gisa.

5. LANGILEAK ETA LANEKO SEGURTASUNA

Enpresa esleipendunak plegu honetan deskribatutako lanak behar bezala egiteko beharrezko langileak izango ditu.

Enpresa esleipendunak beharrezko laneko jantziak eta babes eta segurtasun materiala emango dizkie langileei, bai eta seinaleztapen-piboteak eta trafiko seinaleak ere, galtzada, bide eta abarretatik gertu egin beharreko lanetarako.

Argiak jartzeko, kentzeko eta mantentze-lanak egiteko beharrezkoak diren bitarteko osagarriak enpresa esleipendunak jarri eta kudeatuko ditu.

Lanerako tresna eta ibilgailuek bete behar dituzten funtzioetarako egokiak izan behar dute.

Segurtasunari, aseguruei eta ikuskapenei buruz indarrean dagoen legeria bete beharko dute.

Bide publikoan lan egiten duten ibilgailu guztiek ikusgai egon behar dute. Gauez lan egiten dutenek beharrezko seinaleztapena izan behar dute, eta nahitaez bete beharreko segurtasun-sistemak izango dituzte, bai gidarientzat bai ondoan lan egiten duten langileentzat.

6. INGURUMENA BABESTEKO NEURRIAK

Enpresa esleipenduna izango da obran sortzen diren hondakinen titularra, eta bere ardura izango da hondakin horien kudeaketa, baita hondakin berezien eta arriskutsuen kudeaketa ere. Gainera, materialen eta produktuen biltegiratzeari buruz indarrean dagoen legeria bete beharko du enpresa esleipendunak.

7. KONTRATUA EZ BETETZEA

Kontratuaren hauste edo ez betetzeak horrela sailkatuko dira: oso larriak, larriak eta arinak.

Kontratuaren hauste edo ez betetze oso larria ematen bada zigor ekonomikoa jarriko zaio enpresa esleipendunari. Zigor hori ez betetzea ematen den urteko fakturazioaren %10ekoa izango da.

Kontratuaren hauste edo ez betetze larria ematen bada zigor ekonomikoa jarriko zaio enpresa esleipendunari. Zigor hori ez betetzea ematen den urteko fakturazioaren %5ekoa izango da.

Kontratuaren hauste edo ez betetze arina ematen bada enpresari ohartaraziko zaio. Kontratuan zehar arrazoi edo jatorri bera duten kontratuaren hauste edo ez betetze arinak hiru aldiz errepikatzen badira hauste edo ez betetze larria osatuko dute, eta, ondorioz, dagokion zigor ekonomikoa aplikatuko da.

Kontratuaren hauste edo ez betetze oso larritzat ondorengoak hartuko dira:

- Larrialdietako telefonora egindako deiei ez erantzutea bi orduko epean, baldin eta ez bazaio udal teknikariei ezbehar edo ezinbestearen ondorioa izan dela frogatzen.

- Zuzenketa lanak ez hastea eskatzen direnetik 8 orduko epean.

- Pizteko, itzaltzeko edo argiak kentzeko ezarritako egutegia ez betetzea.

Kontratuaren hauste edo ez betetze larritzat ondorengoak hartuko dira:

- Larrialdietako telefonora egindako deiei ez erantzutea ordubeteko epean, baldin eta ez bazaio udal teknikariei ezbehar edo ezinbestearen ondorioa izan dela frogatzen.

- Zuzenketa lanak ez hastea eskatzen direnetik 5 orduko epean.

- Prebentziozko ikuskapenak ez egitea.

- Langileei lanerako behar duten arropa egokia eta babes ekipoak ez ematea, edota behar bezain beste alditan ez berritzea.

Kontratuaren hauste edo ez betetze arintzat ondorengoak hartuko dira:

- Larrialdietako telefonora egindako deiei ez erantzutea ordu erdiko epean, baldin eta ez bazaio udal zerbitzuak saileko teknikariei ezbehar edo ezinbestearen ondorioa izan dela frogatzen.

- Zuzenketa lanak ez hastea eskatzen direnetik 3 orduko epean.

- Plegu honetako beste edozein puntu edo atal ez betetzea.

8. PROPOSAMENEN AURKEZPENA eta BALORAZIO IRIZPIDEAK

Enpresa lizitatzaileek ondorengo ataletan zehaztutako dokumentazioa aurkeztuko dute.

8.1. MEMORIA TEKNIKOA (40 PUNTU)

Dokumentu bakarra aurkeztuko da, eta 1. eranskinean zehaztutako eremuetako argiztapen-proposamenak deskribatuko dira, baita zerbitzuaren xehetasunak ere:

- Argazki, plano eta/edo fotomuntatzeak.

- Proposatutako modelo, kolore eta osagaiak, gune bakoitzean apainduko diren hiri-altzariak eta eremuak berariaz adierazita.

- Proposatutako elementuen eta materialen ezaugarri teknikoak: potentziak, material motak, ainguratze sistemak eta euskarriak bereziki zehaztuta.
- Aurreikusitako instalazio-datak, plangintza eta ordutegiak, baita mantentze-lanen deskribapena ere.

Memoria teknikoa honako irizpide hauen arabera ebatziko da:

- Apaingarriak zehaztutako eremuetarako egokiak eta proportzionalak izatea: 15 puntu
- Apaingarrien originaltasuna, aniztasuna eta ikusgarritasuna: 10 puntu
- Apaingarrien ezaugarri teknikoen egokitasuna: 10 puntu
- Plangintza eta mantentze-lanen egokitasuna: 5 puntu

8.2. ESKAINTZA EKONOMIKOA (60 PUNTU)

- Proposamen ekonomikoa.

Hernanin, 2025eko urriaren 14an

ANDRES MARIA ORBEA ESTEBANEZ - 72487037F

Firmado digitalmente por ANDRES MARIA ORBEA ESTEBANEZ - 72487037F
Fecha: 2025.10.14 10:33:27 +02'00'

Herri-lanak Saileko arduraduna

1. ERANSKINA: APAINDU ETA ARGIZTATU BEHARREKO EREMUAK